

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak aldeko txostena jaso du Unibasq-ek egindako kalitate sistemaren auditorian

2014/09/12

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak gainditu egin du Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak egindako fakultatearen kalitate sistemaren auditoriaria. Pasa den uztailaren 22an egon ziren AUDIT programaren auditoreak Eskoriatzako campusean, eta oraingo astean jaso du fakultateak ebaluazioaren aldeko txostena.

2014ko uztailaren 22an egindako auditoria saioa egun osokoa izango zen (Egitarau osoa hemen dago ikusgai). Berezitasun moduan esan, lehenengo aldiz egin zela, unibertsitate batean, era horretako auditoria saio bat euskaraz.

Urteak darama Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak erabiltzen oraintsu baiezko ebaluazioa jaso duen kalitate sistema.



2014ko uztailaren 22an egindako auditoria saiotariko bat.